**UDAL OSOKO BILKURA / SESION PLENARIA MUNICIPAL**

**2013ko URRIAK 22 / 22 - OCTUBRE - 2013**

**TOKIA / LUGAR:** SALA CAPITULAR DE LA CASA CONSISTORIAL DE DURANGO

**EGUNA / FECHA:** 22/10/2013

**HASIERA / INICIO:** 17:00 horas

**BERTARATUAK / ASISTENTES:**

**PRESIDENTEA / PRESIDENTA (EAJ-PNV):**
Alkate andrea, Doña Aitziber Irigoras Alberdi andrea

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (EAJ-PNV):**
1. Alkateordea, Doña Maria José Balier Orobio-Urrutia andrea
2. Alkateordea, Don Iker Oceja Sobrón jauna
3. Alkateordea, Don Andoni Iruarrizaga Amantegi jauna
4. Alkateordea, Don Ander Gorrotxategi Legarra jauna
5. Alkateordea, Doña Goiztidi Díaz Basterra **andrea**
6. Alkateordea, Don Jon Kepa Garro Mendiolagarai jauna

Don Juan Ignacio Martínez Orea jauna

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (BILDU)**
Don Urdaspal Bolinaga Mallaviabarrena jauna
Doña Arrate Elkoro Zengotitabengoa andrea
Don Jon Bingen Oier Landabidea Aranburu jauna
Doña Eider Uribe Padilla andrea
Don Pedro Roberto Frontaura Basterra jauna
Doña Deunorone Bizkarra Larrea andrea

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (PSE-EE (PSOE)**
Doña Pilar Ríos Ramos andrea
Don Fernando Castillo Rodríguez jauna
Doña Idoia Agorría Martínez andrea

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (PP)**
Don Juan José Gastañazatorre Urizar jauna
Don Adrian Castro Cebrian jauna

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (ARALAR)**
Don Daniel Maeztu Pérez jauna
Don Iker Urkiza Quilez jauna

**KONTU-HARTZAILE ORDEA / INTERVENTORA EN FUNCIONES**
Doña Maria Pilar Velasco Pérez andrea

**IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL**
Don Ramón Sorarrain Tolosa jauna

**IZAERA / NATURALEZA:** OHIKOA / ORDINARIA
**DEIALDIA / CONVOCATORIA:** LEHENA / PRIMERA

Alkate andreak batzarrari hasiera eman ondoren, 17:00ak direnean, bilera honetako gai-zerrenda osatzen duten asuntoak eztabaidatzeari ekin zaio. Gaiak ondorengo hauek dira:

Abierta la sesión por la Alcaldesa-Presidenta, siendo las 17:00 horas, se pasó a tratar los temas que componen el Orden del Día de la presente sesión y que son los siguientes:

**BAT.- BIDEZKOA BALITZ, AURREKO AKTAREN ZIRRIBOARREN IRAKURKETA ETA ONARPENA, 2013KO IRAILAREN 24KO OHIKOA.**

IRAKURRI OSTEAN aurreko batzarreko akta-zirriborroa, 2013ko irailaren 24ko ohikoa hain zuzen ere.

BOZKETA egin ostean, Udaleko Osoko Bilkurak, aho batez, **ONARTU EGITEN DU 2013ko irailaren 24**ko Osoko Bilkuraren ohiko akta.

**UNO.- LECTURA Y APROBACION, SI PROCEDE, DEL BORRADOR DEL ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR, CORRESPONDIENTE A LA ORDINARIA DE 24 DE SETIEMBRE DE 2013.**

DADA LECTURA al borrador del Acta de la sesión anterior, correspondiente a la Ordinaria de 24 de Setiembre de 2013.

PREVIA votación realizada al efecto, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, **APRUEBA** el Acta del Pleno Ordinario de **24 de Setiembre de 2013**.

**BI.- INTERESDUN GAIEN BERRI EMATEA:**

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Eman beharreko kontuak batzordeetan eman dira eta, horretaz aparte, azken hilabetean onarturiko dekretu guztiak Idazkaritzan daude zuen esku.

Udalbatza jakitun eta ados adierazten da.

**DOS.- DACIÓN DE CUENTA DE ASUNTOS DE INTERÉS:**

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: La información que se precisaba ya ha sido aportada en las Comisiones correspondientes; por otra parte, todos los Decretos aprobados durante este último mes se encuentran en Secretaría a vuestra disposición.

El Ayuntamiento Pleno se da por enterado.

**HIRU.- BIDEZKOA BALITZ, II. AGENDA 21EKO PLANA (2013-2020). (GARAPEN IRAUNKORRA ETA HERRITARREN PARTAIDETZA BATZORDEAREN IRIZPENA DUENA 2013EKO IRAILAREN 16KOA).**

IRAKURRI OSTEAN Garapen Iraunkorra eta Herritarren Partaidetza Batzordeak igorritako irizpena, 2013ko irailaren 16koa, honako hau dioena:

*"Iker Ocejak hitza hartu du, eta azaldu du Aralarrek eta Alderdi Sozialistak Agenda 21eko planerako aldaketak aurkeztu zituztela. Irizpena puntuz puntu egitea proposatu du. Alderdi sozialistak bere alderdiak proposatutako aldaketak erretiratu ditu.*

**TRES.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL II PLAN DE AGENDA 21 (2013-2020). (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN DE DESARROLLO SOSTENIBLE Y PARTICIPACIÓN CIUDADANA DE 16 DE SETIEMBRE DE 2013).**

DADA LECTURA al dictamen emitido por la Comisión de Desarrollo Sostenible y Participación Ciudadana en sesión de 16 de Setiembre de 2013:

*"Toma la palabra Iker Oceja, y explica que al Plan de Agenda 21, se presentaron una serie de modificaciones, por parte de Aralar y el Partido Socialista, y propone dictaminar punto por punto. El Partido Socialista retira las modificaciones propuestas por su partido.*

*Aralarrek proposatutako aldaketen bozketa amaitu eta gero, batzorde-buruak Agenda 21eko planaren bozketa egin du.*

- *Alde: 4 (4 EAJ-PNV),*
- *Aurka: (0)*
- *Abstentzioa: 4 (1 BILDU, 2 PSE-EE/PSOE eta 1 ARALAR)*

*Gehiengoz onartu da Agenda 21eko plana aldaketekin eramatea Osoko Bilkurara*."

* Idazkari Orokorra **Sorarrain Tolosa jaunak**: Tokiko Ekintza Planaren (2013-2020) prozesua duela 18 hilabete hasi zen. Prozesu parte-hartzailea izan da eta bertan, udaleko ordezkari politiko eta teknikariez gain, enpresa eta elkarteetako ordezkariek eta herritarrek hartu dute parte.

Durangoko Tokiko Agenda 21 finkatze aldera, hurrengo 8 urteetan indarrean izango den Ekintza Plana garatu da. Dokumentu nagusiak honako hauek dira:

1. Jasangarritasunari buruzko udal diagnostikoa (sozioekonomikoa eta ingurumenekoa).

2. Hurrengo 8 urteetarako Ekintza Plana (2013-2020), jomuga 2020ko ikuspegia zehaztea izanik.

Tokiko Agenda 21eko Ekintza Plana (2013-2020) garatzeko prozesuan, guztira, 240 pertsonek hartu dute parte; halaber, ondorengo hauek ere izan dira partaide: Gizarte Foroaren bitartez, Durangoko 35 elkarte (kultura, kirola, gizarte arlokoak...); 20 enpresa, lehiakortasun foroaren bitartez, 20 ordezkari tekniko departamentu-arteko batzordekoak eta, azkenik, garapen iraunkorrerako batzorde informatiboa. Batzarrotan hainbat gai aztertu dira: ekonomia arlokoak, gizartekoak eta ingurumenekoak.

Garapen iraunkor eta herritarren parte-hartzeko batzordeak, irailaren 16an, gehiengoaren botoarekin, onartu zuen Tokiko Agenda 21en Ekintza Plana osoko bilkurara igortzea batzordeak berak egindako aldaketak barneratuta.

*Finalizada la votación de las modificaciones propuestas por Aralar el Presidente somete a votación el Plan de Agenda Local 21*

- *Votos a favor: 4 (4 EAJ-PNV),*
- *Votos en contra: (0)*
- *Abstenciones: 4 (1 BILDU, 2 PSE-EE/PSOE y 1 ARALAR)*

*Se dictamina por mayoría elevar a Pleno el Plan de Agenda 21 con la inclusión de las modificaciones aprobadas*."

* Secretario General **Sr. Sorarrain Tolosa**: El proceso para el desarrollo del Plan de Acción Local 2013-2020 comenzó hace ahora 18 meses; un proceso participativo, en el que, además de representantes políticos y técnicos municipales, han intervenido representantes de empresas y asociaciones y la propia ciudadanía.

Con objeto de fijar la Agenda Local 21 de Durango, se ha desarrollado un plan de acción que estará en vigor durante los próximos ocho años. Éstos son los principales documentos que lo conforman:

1. El diagnóstico municipal de sostenibilidad (socioeconómica y ambiental).

2. El Plan de Acción para los próximos ocho años (2013-2020), centrado en la definición del escenario para 2020.

En total, la participación en el proceso de desarrollo del Plan de Acción 2013-2020 de la Agenda Local 21 ha sido de 240 personas, a las que debemos sumar 35 asociaciones de Durango de carácter cultural, deportivo, social etc. que han participado a través del Foro Social; 20 empresas, que han hecho lo propio a través del Foro de Competitividad; 20 representantes técnicos de la Comisión Interdepartamental; y, por último, la Comisión Informativa de Desarrollo Sostenible. Las juntas han versado sobre numerosos asuntos económicos, sociales y ambientales.

El día 16 de septiembre, la Comisión de Desarrollo Sostenible y Participación Ciudadana aprobó, con el voto favorable de la mayoría, elevar el Plan de Acción de la Agenda Local 21 al Pleno, con las modificaciones introducidas por la propia Comisión.

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* **Maeztu Perez jaunak (Aralar)**: Idazkari jaunak, azalpenak ematerako orduan, aipatu duen lehenengo gauza izan da prozesu parte-hartzaile bat izan dela, eta gure lehenengo gogoeta horrekin zerikusia dauka.

Gu oso kritikoak gara Gobernu Taldeak parte-hartzeaz ulertzen duenaz. Guk zoriondu nahi dugu Tokiko Agenda 21eko plan hau garatzeko orduan parte hartu duten herritarrak eta lan egin duten teknikariak ere zoriondu nahi ditugu. Baina ez zaigu iruditzen hau prozesu parte-hartzaile baten ondorio bezala hartu behar dugunik, ikusi besterik ez dago bertan agertzen diren hainbat ekintza eta, gehienbat, plan honekin batera datorren aurrekontua. Hor denetarik dago: erabaki politikoaren ondorengo ekimenak, non herritarren parte-hartzea ez den kontutan hartu.

Aurrekontu horretan agertzen dira hainbat kopuru ere inolako zorroztasunik gabe jaso dira: zortzi urterako aurreikuspen bat egin da, baina egin dena da sail zehatz batzuen aurrekontu partida hartu eta zortzi urteko aurreikuspen batekin biderkatu. Eta guretzat hau ez da zorroztasunez egindako aurrekontu bat.

Baina era berean, parte-hartzea sustatzerako orduan ikusten dugu pertsona konkretu batzuk bai hartu dutela parte, iraunkortasun batekin, antolatu diren foroetan; baina, askoz jota, 20 pertsonen inguruan ari gara berbetan, eta hori guretzat ez da prozesu parte-hartzaile bat. Horrelako prozesuetan oso garrantzitsua da erreferentzialtasun bat daukaten pertsonek parte-hartzea. Horrelako plan bat ekartzen dugunean ondorio nagusi bat atera behar dugu, alegia, herritar guztien iritzia jaso den ala ez, alegia, auzoetako beharrizanak hemen jasota dauden, kolektibo konkretu batzuek –etorkinak edo gazte elkarteak- hemen jasota dauden ala ez, e.a.

Azken baten, 15-20 pertsonen iritziak jaso eta dokumentu baten txertatu dira, hainbat ekimen tekniko eta politikoekin batera. Alde horretatik ez dugu uste hau prozesu parte-hartzaile baten ondorioa dela esan dezakegunik.

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (Aralar)**: Lo primero que ha destacado el señor Secretario durante sus explicaciones ha sido precisamente que se ha tratado de un proceso participativo. Pues bien, nuestra primera reflexión viene relacionada con esta afirmación.

Nosotros somos muy críticos respecto a lo que el Equipo de Gobierno entiende por participación. Queremos felicitar a los ciudadanos que han participado en el desarrollo de este plan de la Agenda Local 21, así como a los técnicos que han trabajado en el mismo, pero no creemos que se pueda considerar resultado de un proceso participativo. No hay más que ver las acciones que contempla el plan y, sobre todo, el presupuesto destinado al mismo. Tenemos de todo, incluso iniciativas resultantes de una decisión política en la que la participación de la ciudadanía no ha sido tomada en consideración.

Asimismo, el presupuesto incluye una serie de importes, sin rigurosidad alguna: se ha elaborado una previsión para los próximos ocho años, pero lo que en realidad se ha hecho ha sido tomar la partida presupuestaria de determinadas áreas y multiplicarla en función de esta previsión. Y, como decía, entendemos que éste no es un presupuesto elaborado rigurosamente.

Al mismo tiempo, sin embargo, observamos que determinadas personas sí han fomentado la participación, en aquellos foros organizados con cierta asiduidad. En cualquier caso, nos referimos a un máximo de 20 personas, lo cual, en nuestra opinión, no puede calificarse de proceso participativo. En los procesos de estas características resulta de gran importancia el hecho de que intervengan personas con cierta referencialidad. Cuando se presenta un plan de estas características, se debe extraer una conclusión principal: si se ha recabado la opinión de toda la ciudadanía, si el plan recoge las necesidades de los barrios, si contempla determinados colectivos como inmigrantes y asociaciones juveniles...

Al fin y al cabo, se ha recabado la opinión de una quincena o veintena de personas, para ser incorporada a un documento junto con otras iniciativas técnicas y políticas. En este sentido, no creemos que se pueda afirmar que esto sea el resultado de un proceso participativo.

Eta jarraipen bat egiterako orduan, zer hartu behar dugu kontuan? Aurrekontuetan jasota dauden partidak? Guztiz irrealak diren partidak? Honi ezin zaio jarraipenik egin.

* **Gastañazatorre Urizar jaunak (PP):** Alderdi Popularraren ustez, politikaren oinarria ezin dira izan boluntarismo handiko dokumentuak, finkatutako helburua lortzeko aukera gutxi dutenak; aitzitik, politikaren oinarrian dauden planteamenduek gutxieneko sinesgarritasuna izan behar dute.

Alde horretatik, aurkeztutako agenda asmo onez beteta dado, borondate politiko izugarriz, baina badu aje bat: errealismo politiko handia falta du. Oso gai zehatzak jorratzen ditu; are zehatzagoak dira helburuak ehunekotan, baina, gure ustez, ikaragarri optimistak dira, eta oso eszeptikoak gara, besteak beste ez daudelako Udalaren esku eta batzuk ez direlako Udalaren eskumenekoak ere.

Gure ustez, enplegu-arloko helburuak eta, hedaduraz, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta gizarte-larrialdietarako laguntzaren hartzaileak gutxitzeko helburuak ikaragarri zailak dira aurreikusten, epea oso luzea baita. Izan ere, oraindik ere ez dakigu nola bilakatuko den ekonomia datozen urteotan eta zer erritmotan haziko den.

Gure ustez, kalkuluak ezin dira egin horrelako arinkeriaz, itxaropen handia pizten baitute baina litekeena baita zapuztea eta huts egitea. Bestalde, beste konpromiso batzuk proposatu dituzue, hala nola gizarte-gastua % 20 handitzea, baina aurrekontu-murrizketak ditugu gaur egun, eta ez dakigu noiz amaituko diren.

Nolanahi ere, hain epe luzerako konpromiso bat hartzea demagogikoa iruditzen zaigu neurri batean, besteak beste Gobernu-Taldeak ez duelako kudeaketa-tresna nagusia, alegia, onartu eta eguneratutako udal-aurrekontu bat, hain zuzen.

Gauza bera esan daiteke beste zenbait arlotako ehuneko direla-eta; hor dira besteak beste: euskalduntzea, kutsadura akustikoaren murrizketa, gizarte-bazterketan erortzeko arriskuan daude pertsonenen kopuruaren murrizketa, enpresa-sor-

Por último, ¿qué se debe tomar en consideración, a la hora de realizar el seguimiento? ¿Las partidas recogidas en el presupuesto, las cuales son absolutamente irreales? No se le puede efectuar un seguimiento.

* Concejal **Sr. Gastañazatorre Urizar (PP)**: Desde el Partido Popular entendemos que la política debe basarse en planteamientos que tengan una mínima credibilidad y no en documentos cargados de grandes dosis de voluntarismo, pero con escasas posibilidades de llegar al fin para que han sido diseñados.

Y la agenda que se somete hoy aquí para su aprobación por parte de este pleno, está cargada de buenas intenciones, de enormes dosis de voluntad política, pero aquejada de una gran falta de realismo político. Plantea cuestiones muy concretas incluso con objetivos porcentuales a conseguir, que a nuestro juicio son tremendamente optimistas y sobre los cuales nos mostramos muy escépticos, entre otras cuestiones, porque no dependen y en algunos casos ni tan siquiera son de competencia municipal.

Los objetivos en materia de empleo y por extensión, la reducción de los perceptores de RGI y AES, entendemos que son extremadamente difíciles de predecir a tan largo plazo, cuando a fecha de hoy todavía desconocemos cual va a ser la evolución y el ritmo de crecimiento de la economía en los próximos años.

Entendemos que no se pueden realizar estimaciones con tanta ligereza, ya que ello contribuye a generar muchas esperanzas y expectativas, que posteriormente pueden verse frustradas y defraudadas. Establecen otros compromisos, como incrementar el gasto social en un 20%, cuando a fecha de hoy estamos asistiendo a momentos de restricciones presupuestarias que no sabemos en qué momento tocarán a su fin.

En cualquier caso, este compromiso a tan largo plazo nos parece un ejercicio un tanto demagógico, entre otras cuestiones porque a fecha de hoy este Equipo de Gobierno no dispone de la principal herramienta de gestión, que *no es* otra que un presupuesto municipal aprobado y actualizado.

Lo mismo podríamos decir respecto al porcentaje de euskaldunización, al de reducción de la contaminación acústica, al de reducción de las personas en riesgo de exclusión social, al del incremento de la generación de empresas, al de

kuntza, airearen kalitatea eta energia berriztagarrien erabilera.

Begi-bistakoa da kudeaketa politikoak bi oinarri behar dituela: plangintza egoki bat egitea, batetik, eta, bestetik –zergatik ez esan?–, helburu handinahiak finkatzea. Politika ezin da trabatuta geratu jarrera konformistetan; hala, kudeaketa politiko egokiak plangintza izan behar du oinarri: plangintza ganorazko, zorrotz eta errealista bat; alegia, plangintza sinesgarri bat.

Kudeaketa politikoa ezin dugu planifikatu "igarpen politikoan" oinarrituz, are gutxiago kontuan izanik zer konplexua den Udalaren osaera politikoa. Agenda hau garatzeko, beharrezkoa da gehiengo politiko egonkorrak izatea, hura sustatzeko eta aurrekontua zuzkitzeko. Gaur egun, ordea, Udalean ez dugu, ez gehiengo egonkorrik, ez aurrekontu-zuzkidurarik.

Alderdi Popularra abstenitu egingo da, ez diogulako atea itxi nahi ekimen honi. Neurri jakinak proposatu ahala emango dugu iritzia, baina zaudete ziur babestu egingo ditugula baldin eta Udalak bere gain har baditzake eta helburua durangarren bizi-kalitatea hobetzea bada.

* **Agorria Martinez andreak PSE-EE (PSOE):** Lehenik, eskerrak eman nahi dizkiet plana prestatzen parte hartu duten pertsona, elkarte eta teknikariei. Tokiko Agendan sinesten dugu; partaidetzan sinesten dugu. Ekintza guztietan parte hartu dugu hasieratik, eta ekimenak babestu eta sustatu ditugu. Durangoko lehenengo ekintza-plana egitea lortu genuen, eta 2007tik 2011ra bitartean garatu genuen, bai aurrekontuen gaineko hitzarmenei esker, bai gobernu zentralaren eta Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzei esker, besteak beste, eta hauexek ziren plan horren ardatzak: mugikortasuna, ibilerraztasuna eta energia aurreztea. Lehenengo plan hori 2011n bukatu zen.

Gaur egun, ordea, egoera energetikoa desberdina da, oparoaldia bukatu egin baita. Aurreko plana eta egungoa oso garai desberdinetan idatzi dira. Urteak daramagu krisialdian: enpresa asko itxi dituzte; beste asko oso egoera txarrean daude;

calidad del aire o al del uso de energías renovables.

Es evidente que la gestión política debe estar basada en una buena planificación y también porqué no decirlo, debe marcarse objetivos ambiciosos. La política no debe enrocarse en posturas conformistas, pero no es menos cierto, que la buena gestión política debe descansar en una planificación, seria, rigurosa, realista y por tanto creíble.

No podemos planificar la gestión política en base a ejercicios de "videncia política", máxime si analizamos la compleja composición política que tenemos en este ayuntamiento. El desarrollo de esta agenda, lleva aparejado la existencia de mayorías políticas estables que la impulsen y que la doten presupuestariamente y a fecha de hoy, en este ayuntamiento, ni mayorías estables, ni dotación presupuestaria.

El Partido Popular se va abstener en la votación porque no queremos dar un portazo a esta iniciativa y nuestro posicionamiento lo iremos manifestando a medida que se vayan proponiendo medidas concretas, pero tengan seguro, que nuestro apoyo estará garantizado en todas aquellas propuestas que sean asumibles para el consistorio y persigan la mejora de la calidad de vida de los durangueses/as.

* Concejala **Sra. Agorria Martinez PSE-EE (PSOE):** Primero de todo agradecer a las personas, asociaciones y técnicos que han participado en la elaboración del plan. Nosotros creemos en la Agenda Local, creemos en la participación. Desde un inicio hemos participado, colaborado e impulsado en todas las acciones. Pudimos elaborar un primer plan en Durango, de acciones que desarrollamos desde el 2007 hasta el 2011 y que pudimos realizar gracias a diferentes acuerdos presupuestarios, subvenciones de gobierno central, gobierno vasco... Este primer plan terminó en el 2011 y estaba centrado en la movilidad, accesibilidad y ahorro energético.

Pero ahora la situación energética es muy diferente, la época de bonanzas se terminó, la época en la que se escribió el anterior plan es muy diferente a la actual. Tras años de crisis económica muchas empresas han cerrado y otras están en muy mala situación, muchas

jende asko lan gabe gelditu da, eta Durangoko familia askok egoera latza bizi dute. Horregatik, orain ezin dugu hartu zortzi urterako konpromisorik, ez baitakigu zer gertatuko den; ezin dugu eman 21 milioi gastatzeko txeke zuririk, ez zaigulako iruditzen logikoa egungo krisialdi ekonomikoa kontuan izanik. Udalaren baliabide ekonomikoak egoera berrira egokitu behar dira.

Azpiegituretan, lanetan eta jasangarritasunean 21 milioi baino gehiago gastatzeak eta gizartearen jasangarritasuna alde batera uzteak ez du adierazten sentsibilitate handirik.

Bigarren plana onartzea aurrekontuak aurkeztu aurretik, ez dakigula zenbat diru dagoen gizarte-ekintzarako eta gainerako alorretarako, kontuan izanik aurrekontuak bi urtez luzatu ditugula, ez zaigu iruditzen oso koherentea.

* <u>**Elkoro Zengotitabengoa andreak (Bildu)**</u>: Guk eskertu nahi ditugu bertaratu diren herritarrak, elkarte eta teknikariak. Badakigu herritar askok sentitzen zutela euren erabakiak edo iritziak ez zituztela kontuan hartuko, baina hala ere, lanera bertaratu dira.

Pasa den urteko maiatzean diagnostiko bat egin zen, eta txarto hasi zen, diagnostiko hori 2010eko datu batzuekin egin baitzen. Egin nahi dugun beste kritika bat da foroan egin den dinamizazioa ez dela batere parte-hartzailea izan. Hiru foro baino ez dira egon herritarrekin, beste hiru foro elkarteekin eta batzar bat interdepartamentala. Hurrengo zortzi urterako ekintza plana egiteko nahikoa dela uste duzue?

Gainera foro horietan ez da inolako informaziorik eman, ez da azaldu udal honen egoera zein den, adibidez remanentean dagoen dirua zenbatekoa den eta zertan gastatu nahi den, edo zeintzuk diren diru-sarrerak eta gastu arruntak, euren arteko diferentzia %5a baino ez denean. Baina inbertsioak egiten, bost urteetan, 60 milioi xahutu dituzue.

Bestalde, ez dira azaldu beste esperientzia batzuk erabakiak hartzerako momentuan, eta pentsatzen dugu herritarrek jakin behar dutela udaleko egoera

personas se han quedado en el paro y muchas familias de Durango lo están pasando mal. Y ahora no podemos asumir un compromiso para ocho años inciertos, dar un cheque en blanco para gastar más de 21 millones, viendo la situación económica que se está viviendo no nos parece lógico. Hay que adaptar los recursos económicos del Ayuntamiento a la nueva realidad.

No demuestra mucha sensibilidad dedicar a infraestructuras, obras y sostenibilidad medioambiental más de 21 millones y dejar de lado la sostenibilidad social.

Aprobar este segundo plan, antes de que se presenten los presupuestos, sin saber cuanto dinero hay para Acción Social, para el resto de áreas... y tras dos años de presupuestos prorrogados, no nos parece muy coherente.

* Concejala <u>**Sra. Elkoro Zengotitabengoa (Bildu)**</u>: Nos gustaría dar las gracias a todos los ciudadanos, asociaciones y técnicos que han intervenido en el proceso. Sabemos que gran parte de la ciudadanía sentía que sus decisiones y opiniones no iban a ser tomadas en consideración, pero, aun así, se ha acercado a trabajar.

En mayo del año pasado se elaboró un diagnóstico, un diagnóstico que comenzó mal, pues fue elaborado basándose en datos de 2010. Asimismo, quisiéramos reseñar que la dinamización del foro no ha sido participativa en absoluto. Sólo se han organizado tres foros con la ciudadanía, otros tres con las asociaciones y una junta de la Comisión Interdepartamental. ¿Lo consideran suficiente, para la elaboración de un plan de acción para los próximos ocho años?

Además, en estos foros no se ha proporcionado información alguna, no se ha aclarado la situación de este ayuntamiento, en cuestiones como el valor total del remanente y el destino que se ha previsto para el mismo o el importe de los ingresos y gastos comunes, que sólo se diferencian en un 5 %, aun cuando en cinco años hayan gastado 60 millones en inversiones.

Asimismo, no se han expuesto otras experiencias, a la hora de tomar decisiones. Creemos que la ciudadanía debe conocer la situación del Ayuntamiento y, en función de ello, tomar de-

zein den eta horren arabera erabakiak hartu. Baina zuek nahiago duzue datuak ezkutuan eduki eta horrelako sasi-parte-hartzearekin zuen aurpegia zuritu. Argi daukagu zein den zuen parte-hartze ideala, alkate andreak esan zuenez pasa den astean aurkezpenean "le gusta el jercicio de responsabilidad de algunos que ponen sus ideas en manos de la institución".

Guk pentsatzen dugu hori ez dela behar dugun gauza bakarra, behar duguna da jendea informatu eta ondoren denon artean proposamenak egin, denon artean erabakiak hartu eta denon artean erabaki horiek lehenetsi eta, ez, orain egin den moduan, hemen hartu dira erabaki batzuk eta lehenetsi ere hemen egin dira.

Aurrekontua ikusita, argi dago prozesu honetan ez dela parte-hartzerik egon; adibidez, aurrekontuaren % 50a hirigintzara bideratutako partidak dira. Eta galdera da: partida hau herriak erabaki ditu? Zuen helburua herritarren aurrean legitimitatea lortzea da. Zuentzat dokumentu hau burokrazia hutsa da, eta hainbat bider demostratu duzuen moduan, ez duzue parte-hartzean sinesten.

* 5. Alkate Ordea **<u>Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)</u>**: Ez dakit prozesu bera jarraitu dugun denok, zeren, nik dauzkadan datuak desberdinak dira. 240 pertsona inguruk hartu dute parte: 40 pertsona, gutxi gorabehera, foro bakoitzeko; 35 elkarte; 20 enpresa, 13 teknikari,... Guk bai sinesten dugu parte-hartzean. Agenda 21ean sinesten dugu, guretzat foro parte-hartzaile bat da, agian hori da beste batzuek gustuko ez dutena, baina funtzionatzen du.

Aurreko planean, aurrekontuetako 9 milioi ingurutik azkenean 15 milioi inguru inbertitu dira bertatik ateratako ekintzak aurrera eramateko.

Izan daiteke egia herritarrek ez dutela erabakitzen zenbat diru eman ekintza bati, baina bai ekintzak zeintzuk izango diren. Guk sinesten dugu Agenda 21 foroan. Geure eskerrona helarazi nahi diegu bertara bildu diren durangar guztiei eta, horregatik, beraien alde egingo dugu plan honi baiezko botoa emanez.

cisiones. No obstante, ustedes prefieren ocultar sus datos y justificarse mediante esta pseudo-participación. Tenemos claro su ideal de participación: tal y como declaró la señora Alcaldesa en la presentación de la pasada semana, "le gusta el ejercicio de responsabilidad de algunos que ponen sus ideas en manos de la institución".

Nosotros, por nuestra parte, consideramos que no es lo único necesario, que lo que necesitamos es informar a la gente y posteriormente realizar propuestas entre todos, tomar decisiones y priorizarlas entre todos, al contrario que ahora, que las decisiones se han tomado y priorizado aquí.

Visto el presupuesto, resulta evidente que en este proceso no ha habido participación: por ejemplo, el 50 % del presupuesto se destina a partidas de urbanismo. Entonces, nos preguntamos: ¿Estas partidas las ha decidido la ciudadanía? Su objetivo se limita a lograr cierta legitimidad ante la ciudadanía. Para ustedes, este documento es pura burocracia, puesto que, tal y como han demostrado en repetidas ocasiones, ustedes no creen en la participación.

* 5ª Tnte. de Alcalde **<u>Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)</u>**: No sé si todos hemos seguido el mismo proceso, pues los datos de los que yo dispongo son diferentes. La participación ha sido de alrededor de 240 personas: unas 40 por foro. También han intervenido 35 asociaciones, 20 empresas, 13 técnicos... Nosotros sí creemos en la participación. Creemos en la Agenda 21, que consideramos un foro participativo, lo cual puede no gustar a otros. Pero funciona.

En el plan anterior, hemos pasado de un presupuesto de alrededor de 9 millones a un presupuesto de alrededor de 15 millones, invertidos en la ejecución de las acciones contempladas en el plan.

Bien podría ser cierto que la ciudadanía no decide el importe destinado a una acción determinada, pero sí decide las propias acciones. Nosotros creemos en el Foro de Agenda 21, y nos gustaría mostrar nuestro agradecimiento a toda la ciudadanía de Durango que ha asistido al mismo; por lo tanto, en defensa de sus intereses, vamos a votar a favor de este plan.

* **Maeztu Perez jaunak (Aralar)**: Esatea foro bakoitzean 40 pertsona inguru egon direla, beste barik, gezurra esatea da. Politikariak eta teknikariak alde batera utzita, aurkezpenean izan ezik, foro bakar batean ere ez dira egon 50 herritar. Eta hori datu objektibo bat da.

Hemendik aurrera uste dut gauza batzuk nabarmendu egin behar direla. Hemen garrantzitsua da jakitea zertaz ari garen prozesu parte-hartzaile bat esaten dugunean.

Hartzen baldin badugu aurrekontua, ikus dezakegu 22 milioi inguruko aurrekontu baten aurrean ari garela, lehen esan dudan bezala, inolako zorroztasunik gabe egindako aurrekontu baten aurrean.

Bakarrik hiru partida aztertu behar ditugu aurrekontua horren erdia topatzeko:

- "Cinturón exterior" bezala agertzen den partida: 6 milioi euro.

- Ni udaletxean nagoenetik, arau subsidiarioetan marraztuta dagoen Urki-Hegoalde lotura, "mejoras en infraestructuras urbanas del sector comercial", alegia, PERCO plana, Tokiko Agenda 21etik kanpo erabaki den beste plan bat, aurreikusita dago 2020an 5 milioi jasoko direla,

- Eta gero beste milioi bat Berdintasun planarentzat, zerikusirik ez daukana Tokiko Agenda 21arekin.

Eta hori aurrekontuaren erdia da. Hau ez da prozesu parte-hartzaile bat. Hau da sail desberdinetako partidak hartzea, excel horri baten jarri eta esatea: "hau da ekintza plana" eta hau da aurrekontua.

Uste dut aukera paregabea dela, momentu honetan, Durangon prozesu parte-hartzaile bat martxan jartzeko, Tokiko Agenda 21ean planteatutako ekintza asko parte-hartzearekin erabaki behar direlako.

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (Aralar)**: Afirmar que en cada foro han intervenido 40 personas es, simplemente, mentir. Al margen de los políticos y los técnicos, con la excepción del día de la presentación, en ningún foro han intervenido 50 ciudadanos. Éste es un dato objetivo.

A partir de este punto, considero que debemos subrayar diversas cuestiones. Lo relevante es conocer a qué nos referimos cuando hablamos de un proceso participativo.

Si tomamos el presupuesto, observamos que nos encontramos ante un presupuesto de unos 22 millones; tal y como afirmaba anteriormente, ante un presupuesto elaborado sin rigurosidad alguna.

La mitad del mismo lo hallamos en sólo tres partidas.

- Por una parte, la partida denominada "cinturón exterior", a la que se destinan 6 millones de euros.

- Por otra, la conexión Urki-Hegoalde, esbozada en las normas subsidiarias desde que estoy en este ayuntamiento: la partida "mejoras en infraestructuras urbanas del sector comercial"; es decir, el plan PERCO, otro plan decidido al margen de la Agenda 21, al que en 2020 se prevé destinar 5 millones.

- Por último, se destina un millón más al Plan de Igualdad, que no guarda relación alguna con la Agenda Local 21.

He ahí la mitad del presupuesto. Éste no es un proceso participativo. Esto es tomar partidas de diferentes áreas, trasladarlas a una hoja Excel y afirmar que éste es el plan de acción, y éste el presupuesto.

Creo que en este momento nos hallamos ante una oportunidad única para poner en marcha un proceso participativo en Durango, ya que consideramos que muchas de las acciones planteadas en la Agenda Local 21 deben ser decididas con la participación de la ciudadanía.

* **Agorria Martinez andreak PSE-EE (PSOE)**: Hasiera batean, foroak urtean hamar bat aldiz egiten zuen bilera. Joan den urtean, berriz, bi bilera egin zituen, eta aurten, bat; hau da, guztira, hiru bilera.

Plan honetako proiektu batzuk 2010ean hitzartu eta sinatu ziren zenbait alderdirekin, eta urteak daramate aurrekontuetan. Herritarren ekarpenen ehunekoa oso-oso txikia da; ekintzak aurrekontu luzatuen barnean daude dagoeneko, negoziatu egin baititugu. Errealistak izan behar dugu, eta gure betebeharra da ekintzak lehenestea: hauek eta enplegua sortzeko beste batzuk.

Udal honetan, sozialisten proposamenak bakarrik hezurmamitu dira. Bada, gure proposamena da plana doitzea, epe laburragoak finkatzeko eta parte-hartze eta adostasun handiagoa izan dadin saiatzeko, eta ekintzei diru-kontu errealak esleitzea, aurrekontuek dakartzatenak –kontuan izan behar da aurrekontuak onartzeko daudela, oraindik ez dugula aurrekonturik–. Gure helburuak izan behar du gizartearen jasangarritasuna lortzea, jasangarritasun ekonomikoa eta ingurumenarena kontuan izanda betiere.

* **Elkoro Zengotitabengoa andreak (Bildu)**: Hainbat bider irakurri dugu, eta hemen ere entzun dugu, 240 pertsonek hartu dutela parte, eta hori ez da egia. Bertaratu garenok badakigu 20 pertsona baino gutxiagok hartu dutela parte, gero teknikari eta zinegotziak ere egon gara, baina ez da egia datu hori.

Guk parte-hartzean sinesten dugu, hainbat aldiz egon gara zuekin batzartuta honi buruz berbetan, apirilean idatzi bat sartu genuen esanez orain daukagula aukera ona APOA berraztertzeko eta diagnostikoa parte-hartzailea egiteko. Daukagun remanentea zertan gastatu erabakitzeko herritarren parte-hartzea ezinbestekoa dugu.

* 5. Alkate Ordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Nik dauzkadan datuak teknikariak berak emandakoak dira. Guretzat Durangon egin diren foroak bai dira parte-hartzaileak.

* Concejala **Sra. Agorria Martinez PSE-EE (PSOE)**: En un principio el foro se reunía unas 10 veces al año. El año pasado se hicieron dos foros de ciudadanía y este año uno; total, tres foros.

En este plan se incluyen proyectos que llevan firmados y acordados desde el 2010 con diferentes partidos, acciones que se llevan realizando en los presupuestos desde hace años. El tanto por ciento de aportaciones de la ciudadanía es mínimo, son acciones que ya están dentro de los presupuestos prorrogados, acciones que hemos negociado. Hay que poner los pies en la tierra y nuestra obligación es priorizar todas estas acciones. Estas y otras más encaminadas a generar empleo.

Las únicas propuestas llevadas a cabo por este Ayuntamiento a este respecto han sido propuestas socialistas. Nuestra propuesta es reajustar el plan con plazos más cortos y buscando una mayor participación y un mayor consenso e incluir acciones con partidas reales que estén en los presupuestos, en unos presupuestos que se tienen que aprobar, que todavía no tenemos, y todo ello, buscando la sostenibilidad social sin dejar de lado la sostenibilidad económica y medioambiental.

* Concejala **Sra. Elkoro Zengotitabengoa (Bildu)**: Hemos leído en repetidas ocasiones, y también lo hemos escuchado aquí, que la participación ha sido de 240 personas, pero eso no es cierto. Los asistentes sabemos que la asistencia ha sido menor. También hemos asistido técnicos y concejales, pero, en cualquier caso, este dato no es cierto.

Nosotros creemos en la participación; en diversas ocasiones nos hemos reunido con vosotros, para dialogar sobre este asunto; en abril presentamos un escrito en el que afirmábamos que estábamos ante una buena oportunidad para replantear el PGOU y elaborar un diagnóstico participativo. La participación de la ciudadanía resulta fundamental para decidir sobre el destino del remanente del que disponemos.

* 5ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Los datos de los que yo dispongo me los ha proporcionado por el propio técnico. Para nosotros, los foros que se han organizado en Durango sí que han sido participativos.

Argi dago Aralarrek eta guk parte-hartzearen ikuspegi desberdina daukagula, izan ere, beraiek gobernatzen duten herrietan beraientzat parte-hartzea Agenda 21eko plana aurrera eramateko enpresa publiko bat sortzea da. Guretzat foroak egitea izan da parte-hartzea.

Resulta evidente que Aralar y nuestro Grupo tienen diferentes perspectivas respecto a la participación, pues en los municipios en los que gobierna Aralar parece que la participación consiste en la constitución de una empresa pública que ejecute el Plan de Agenda 21. En cambio, para nosotros, la participación consiste en la organización de foros.

Eztabaida amaitu ondoren, Presidenteak gaia bozkatzea proposatu du. Emaitza hauxe:

- Aldeko botoak: ZORTZI, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea.
- Kontrako botoak: HAMAIKA, 6 Bildu, 3 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra eta 2 Aralar.
- Abstentzioak: BI, 2 Alderdi Popularra.

Hortaz,

UDALEKO OSOKO BILKURAK, gehiengoaren botoekin, **EZ DU ONARTZEN** II. Agenda 21eko Plana (2013-2020).

Finalizado el debate, la Presidencia lo somete a votación, obteniéndose el siguiente resultado:

- Votos a favor: OCHO, 8 del Partido Nacionalista Vasco.
- Votos en contra: ONCE, 6 de Bildu, 3 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra y 2 de Aralar.
- Abstenciones: DOS, 2 del Partido Popular.

En consecuencia,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, **RECHAZA** el II Plan de Agenda 21 (2013-2020).

**LAU.- BIDEZKOA BALITZ, 2014KO. URTERAKO ORDENANTZA FISKALAK HASIERA BATEAN ONARTZEA. (KONTU BATZORDE BEREZIAREN IRIZPENA DUENA 2013KO URRIAREN 17KOA).**

Kontu batzorde bereziak, iragan urriaren 17an, irizpena egin zuen tokiko zergen kudeaketaren gaineko espedienteari buruz eta prezio publikoen diru-bilketa eta ikusatzearen gainean, betiere, toki ogasunak arautzen dituen legearen 16 eta 17. artikuluek ezartzen dutena aintzat hartuta eta, halaber, kontuan hartuta honako lege-testuek ezarritakoa: uztailaren 4ko, 5/89 Foru Arauaren 15. artikulua eta hurrengoak eta toki araubide arautzen duten oinarrien legearen 49. artikulua, betiere, 2014. urterako ordenantza fiskalak aldatzeko.

**CUATRO.- APROBACIÓN INICIAL, SI PROCEDE, DE LAS ORDENANZAS FISCALES PARA EL EJERCICIO 2014. (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN ESPECIAL DE CUENTAS DE 17 DE OCTUBRE DE 2013).**

VISTO el dictamen elaborado el pasado día 17 de Octubre por la Comisión Especial de Cuentas, respecto al expediente de Tributos Locales, su gestión, recaudación e inspección y Precios Públicos, a tenor de lo dispuesto en los Artºs. 16 y 17 de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, en concordancia con el Artº. 15 y ss. De la Norma Foral 5/89, de 4 de Julio, de Hacienda Forales y, conforme lo establece el Artº. 49 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, para la modificación de las Ordenanzas Fiscales de cara al ejercicio 2014.

* Kontuhartzaile ordea **Velasco Perez andreak**: 2014ko Ordenantza Fiskalaren zirriborroa alkate andreak aurkeztu zuen 2013ko irailaren 11ko batzordean. Planteamendua izan zen 2013. urteko ordenantzako tarifak % 2,2a igotzea. Zuzenketak aurkezteko epea irailaren 30era arte luzatu zen. Urriaren 2an, 15ean eta 16an zuzenketok aztertu ziren eta urriaren 17ko Kontu Batzorde Bereziak irizpena hartu zuen osoko bilkurara eramateko. Bildu eta Aralarrek 10 zuzenketa partzial aurkeztu zituzten; Alderdi Popularrak 15, Alderdi Sozialistak 12 eta, Durangoko Dendak Bai-k aurkeztutakoaren ondorioz, Eusko Alderdi Jeltzaleak 3.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Txanda zabaldu baino lehen, bozeramaleen batzordean adostu genuen parte-hartzeak ohikoak izango direla, hau da, lehenengoa 5 minutukoa eta 2. bueltan 2 minutu.

* **Maeztu Perez jaunak (Aralar)**: Azalduko dugu zeintzuk izan diren Aralarrek mahai gainean jarri dituen ildo nagusiak Ordenantza Fiskalen eztabaidan.

Uste dugu zerga-politika eta tasak ezartzerako orduan helburua ez dela bakarrik izan behar dirua biltzea, hori tramite hutsa baita, guretzat aukera dago dirua birbanatzeko eta justizia sozialaren irizpideak aplikatzeko zergak eta tasak ezartzen ditugunean.

Guk hiru arlori eman diegu garrantzia, baina ez bakarrik gureak aurkezterako orduan, beste taldeek aurkeztutako zuzenketen bozkatzeko orduan ere irizpide bera erabili dugu.

- ✓ Uste dugu aukera dagoela etxebizitza-politikan eragiteko, hutsik dauden etxebizitzetan alegia;

- ✓ Zaborren arloa ere garrantzitsua iruditzen zaigu eta ez dugu ahaztu behar eztabaida hori pendiente daukagula herri honetan, hau da, zer egin zaborren atal organikoarekin. Beste leku batzuetan eztabaida hori askoz garatuagoa daukate, baina hemen jarraitzen dugu higiezinen metro karratuko kobratzen, ez dugu aplikatzen Europan gaur egun ezartzen diren irizpide ekologikoak, alegia: gehiago kutsatzen duenak gehiago ordaindu behar du.

* Interventora en funciones **Sra. Velasco Perez**: El día 11 de septiembre de 2013, la señora alcaldesa presentó en junta el borrador de la Ordenanza Fiscal para 2014. Planteaba un aumento del 2,2 % respecto a las tarifas de la Ordenanza de 2013. El plazo para la presentación de enmiendas se extendió hasta el 30 de septiembre. Los días 2, 15 y 16 de octubre se examinaron las enmiendas presentadas, y el día 17 de octubre la Comisión Especial de Cuentas aprobó un dictamen, que debía elevarse al Pleno. Bildu y Aralar presentaron diez enmiendas parciales; el Partido Popular, quince; el Partido Socialista, doce; y el Partido Nacionalista Vasco, tres, a raíz de la presentada por la asociación Dendak Bai de Durango.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Antes de abrir el turno de intervenciones, me gustaría recordar que en la reunión de la Junta de Portavoces acordamos que la duración de las intervenciones sería la habitual; es decir, que la primera intervención podrá durar hasta cinco minutos, y la segunda, dos.

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (Aralar)**: Veamos las principales líneas planteadas por Aralar al hilo del debate sobre las Ordenanzas Fiscales.

Consideramos que a la hora de fijar la política fiscal y las tasas, nuestro objetivo no puede reducirse a la recaudación, lo cual constituye un mero trámite. Para nosotros, la fijación de tasas e impuestos ofrece la posibilidad de redistribuir la riqueza y aplicar criterios de justicia social.

Nuestro Grupo ha priorizado tres ámbitos, no sólo a la hora de presentar nuestras enmiendas, sino también a la hora de votar las enmiendas presentadas por los demás grupos.

- ✓ Por un lado, creemos que tenemos la oportunidad de influir en la política de vivienda, en la política respecto a las viviendas vacías.

- ✓ Por otro, también el ámbito de las basuras nos parece importante, y no debemos olvidar que el debate respecto a lo que debemos hacer con la fracción orgánica de los residuos aún sigue pendiente en este municipio; y es que en otros lugares el debate está mucho más desarrollado, pero aquí continuamos cobrando por metro cuadrado de bien inmueble, sin aplicar los criterios ecológicos que se aplican a día de hoy en Europa, donde quien más contamina más paga.

✓ Azkenik pentsatzen dugu aukera dagoela ere enplegua sustatzeko, edo behintzat, hobari batzuk erabilita ahalbideratzea jarduera ekonomiko zehatz batzuk. Eta hau guztia irizpide sozialak erabilita, hau da, pertsonen errenta kontuan hartuta.

Hiru helburu zehatz hauekin aurkeztu genituen hainbat zuzenketa batzordean, eta Osoko Bilkura honetan ere mantendu egiten ditugu. Guretzat esanguratsuenak dira, alde batetik, hutsik dauden etxebizitzei zerga bat ezartzea higiezinen zergaren bitartez, alegia, gain-zerga bat ezartzea; Gipuzkoan egin den bezala Bizkaian ere egitea. Eta bigarrena zaborren tasa erabiltzea gain-zerga bat ezartzeko hutsik dauden etxebizitzetan.

Zaborren tasan proposatzen genuen autokonpostaia egiten duten etxebizitzentzat hobari bat ezartzea proposatzen dugu, gaur egun metro karratuen arabera kobratzen delako. Badakigu oraindik ezin dela kobratu beste sistema batzuk erabilita baina bai, autokonpostaia euren etxeetan ezartzen dutenei, hobari bat ezarri dakieke atal organikoa birziklatu eta berrerabiltzeagatik.

Azkenik beste gogoeta orokor bat: guretzat eztabaida mutilatu baten aurrean gaude, beti bezala, hainbat datu faltan botatzen ditugulako, esaterako, estaldura- maila. Hainbat zerbitzutan tasak ezartzen ditugunean ez dakigu zein den zerbitzu horren estaldura-maila. Eta hau garrantzitsua da aurreikuspenak egiteko ere, hau da, inportantea da jakitea zenbat diru biltzea aurreikusten dugun tasa eta zergen bitartez jakiteko, gero, zein gastu-politika abiarazi behar dugun. Aurreikuspenen inguruan inoiz ez da daturik egoten eta uste dugu funtsezkoa dela jakiteko gure erabakien ondorioak zeintzuk izango diren.

Beraz, uste dut hanka-motz geratzen ari dela eztabaida hau. Hortaz, gure kontrako iritzia emango diogu irizpen orokorrari, nahiz eta gure zuzenketak mantendu egingo ditugun.

✓ Por último, entendemos que también tenemos la posibilidad de fomentar el empleo o, al menos, favorecer determinadas actividades económicas mediante ciertas bonificaciones. Además, en todos los casos se deberían aplicar criterios sociales, es decir, se debería tomar en consideración la renta de las personas.

Las enmiendas que presentamos ante la Comisión respondían a estos tres fines concretos, y en este pleno vamos a mantenerlos. Para nosotros, lo más relevante es, por una parte, gravar las viviendas vacías a través del impuesto sobre bienes inmuebles, es decir, fijar un sobreimpuesto, hacer en Bizkaia lo mismo que se hace en Gipuzkoa, y, por otra, emplear la tasa sobre el servicio de basura como base para fijar un sobreimpuesto sobre las viviendas vacías.

Respecto a la tasa sobre el servicio de basura, que actualmente se cobra en función de los metros cuadrados, proponíamos fijar una bonificación para las viviendas que practiquen el autocompostaje. Sabemos que aún no es posible, por el uso de otros sistemas, pero podría establecerse una bonificación que premie el autocompostaje como forma de reciclar y reutilizar la fracción orgánica de los residuos.

Finalmente, me gustaría efectuar una última reflexión general. Y es que, a nuestro entender, nos encontramos ante un debate mutilado, como viene siendo habitual, en el que echamos de menos diversos datos, como el nivel de cobertura: cuando fijamos las tasas de determinados servicios, desconocemos su nivel de cobertura, si bien este dato resulta de gran importancia para la elaboración de previsiones; es decir, debemos conocer cuánto dinero se prevé recaudar a través de las tasas e impuestos para poder decidir qué políticas activar en el plano del gasto. Sin embargo, nunca disponemos de datos relativos a las previsiones, aun cuando resultan de vital importancia para conocer las posibles consecuencias de nuestras decisiones.

Por tanto, considero que esté debate se está quedando truncado, por lo que vamos a votar en contra del dictamen general, manteniendo nuestras enmiendas.

* **Gastañazatorre Urizar jaunak (PP):** Guztiok dakigu egoera ekonomiko zailean gaudela; guztiok dakigu Durangoko familia askok egiazko zailtasunak dituztela eta ahalegin ikaragarria egin behar dutela hilabete bukaerara iristeko eta eguneroko gastuei aurre egiteko. Eta Durangarrei ezarri beharreko zergen karga handitu ala ez erabakitzen ari garela, ezin dugu egoera hori alde batera utzi; alderantziz, oso gogoan izan behar dugu.

Gure taldeak oso gogoan izan du egoera, eta horregatik egin ditu ekarpenak (alegia, zuzenketak), Euzko Alderdi Jeltzaleak aurkeztutako zerga-igoera arintzeko. Hain zuzen ere, hamabost zuzenketa aurkeztu ditugu, baina hiru bakarrik onartu dira. Adibidez, eskatu dugu baliabide gutxi dituzten familia-unitateek ondasun higiezinen gaineko zergaren kuota txikiagoak ordaintzeko, baina ezezkoa eman digute, legezkotasun-irizpideak direla eta. Gu ez gatoz bat.

Hala ere, egiazko arrazoia aipatu diguten hori baldin bada, zera eskatu nahi dugu –ekimen bat aurkeztu ere egingo dugu–: udal-ordenantza bat presta dadin, zuzeneko diru-laguntzen lerro bat finkatzeko, baliabide gutxi dituzten familiei ondasun higiezinen gaineko zergagatik ordaintzen dutena konpentsa dakien.

Era berean, udalerrian enplegua eta jardun ekonomikoa sustatzeko ekimenak aurkeztu ditugu, hala nola hobariak eraikuntzen gaineko zergan, zaborraren gaineko tasan eta lanak egiteko lizentzietan, baina ez da bat ere onartu. Hala ere, lehen aipatu dudanez, hiru zuzenketa onartu dira, garrantzitsuak gure ustez. Esate baterako, baliabide gutxi dituzten familia-unitateek % 60ko eta % 40ko hobaria izango dute eraikuntzen eta obren gaineko zergan, lan txikiak egiten dituztenean.

Hau da, baliabide gutxi dituzten familia-unitateek ordaindu beharko luketenaren erdia baino gutxiago ordainduko dute, eraberritze-obrak egin behar badituzte etxean. Bestalde, gizarte-etxebizitzen sustapenei % 95eko hobaria aplikatzea ere onartu da.

* Concejal **Sr. Gastañazatorre Urizar (PP)**: A nadie se nos escapa que nos encontramos en una situación económica difícil. Todos somos conscientes de que muchas familias de Durango están atravesando verdaderas dificultades y tienen que hacer verdaderos esfuerzos para tratar de llegar a fin de mes y poder afrontar sus gastos cotidianos. Por tanto, la decisión de incrementar la carga fiscal a nuestros vecinos, no puede abstraerse de esta situación y más al contrario, tiene que tenerla muy presente.

